

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI WUKRO

### Aurkin salmenta solidarioa

Aurki eskulanak tailerretan egindako lanak salgai jarriko dira prezio berezietan eta bertan biltzen den diru guztia Wukrore bidaliko da. Tailerretako lanen erakusketa eta salmenta biharko maiatzaren 31ra arte egongo da martxan. Salmenta orduak astelehenean 10:00etatik 13:00etara eta asteazkenean 16:30etatik 19:00etara izango dira. Gerturatu ezin izanez gero deitu 619800885 zenbakira. ■

## ■ HERNANI TXISTULARIAK

# Udaberriko kontzertua, Kaxkoan zehar

12:30etan irtengo da Txistulari Banda Plazatik eta kalejira egingo dute euskal doinu batzuk eta Europa Erdialdeko pare bat doinu joaz. Tronboiarekin eta eskusoinuarekin lagunduta ariko dira.

UDABERRIAREKIN batera ohitura da Txistulari Bandak kontzertu berezi bat eskaintzea. Udaberriko kontzertua esaten zaio eta gaur eskainiko dute, 12:30etatik aurrera, erdialdeko kaleetan zehar. Horrexegatik izaten da berezia, Kaxkoan zehar jotzen dituztelako beraien pieza eta doinuak.

Aurten gainera, txistulariak tronboiarekin eta eskusoinuarekin lagunduta jardungo dira. Euskal doinu batzuk eta Europar erdialdeko pare bat joko dituzte. Taberna eta gune desberdinen parean geldialdiak egiten dituzte; hala nola Tripontzi, Deportivo, Plaza Berri, Onddi, Kixkal edo Riojanos esate baterako. ■



Kaxkoko kaleetan zehar ariko dira txistulariak doinuak jotzen eguerdian.

## ■ HERNANI KAXKO ELKARTEA

# Gaztain postua liburu txoko bihurtu da

Liburu bidaiarien denboraldia izaten da udaberria eta udara Plaza Berriko postuan.

EUROPAKO Liburuak Kalera ekimenarekin bat eginez, liburu eta aldizkariak herritar guztien eskura jarri ditu Kaxko Elkarteak Plaza Berriko txabolan, udaran eta udaberrian. Udazkenean eta neguan gaztainak saltzen dira bertan, baina behin sartuta Liburu bidaiarien garaia iristen da postura.

Herritarrek eta bisitariek aukera dute bertan liburu eta aldizkariak trukatzeko edota bertan irakurtzeko.

Azkenean helburua ira-

kurzaletasuna bultzatzea da eta jendeak kalean irakurtzea. Bigarren edizioa da eta Kaxko elkarteak Udala eskertzen du bere babesarengatik, baita ekimen hau edukitzeagatik zoriondu dituzten bizi-lagunak.

Europa osoko elkarte desberdinek bultzatzen dute ekimena, orain 20 urtetik, eta kaleak betetzen dituzte testu eta liburuarekin. Nahi duetenez badute Hernanin ere bere txokoa, Plaza Berriko Gaztain postua. ■

## ■ URUMEA HISTORIA

# Euskal Herriko historia aztergai, ikastaroan

Donostian emango da asteartero maiatzaren 28ra arte, Beñi Agirrek zuzenduta.

DONOSTIAKO Motako Gazteluak, Hernani Errotzen Elkarteak, EA elkarteak eta Nabarralde Fundazioak elkarlanean *Euskal Herriko historia* ikastaroa eskainiko dute, maiatzaren 7tik, astearte, maiatzaren 28ra, Donostian, bi orduko saiotan.

Euskal Herriaren historiaren irakurketa orokor eta sintetikoa eskainiko da, ikuspegi propiotik landuz eta egun bizi den errealitatean eragiten duten erreferente eta gertaera historikoak azpima-

rratuz.

19:00etatik 21:00etara lau astetan zortzi ordu eta EA Elkarteak, Salamanca Pasalekua 9an emango da. Beñi Agirre izango da zuzendaria.

Nabarralde eskaintzen duen on-line bidezko ikastaroaren laburpena lantzen da ikastaroan.

Gaian interesa duen edozeini dago zuzendua. Baita beraien jarduna garatzeko prestakuntza behar duten irakasle eta hezkuntza munduko profesionaleri ere. ■

## ■ HERNANI EXTREMADURA

### Gaur jardunaldi extremeñoak

Extremadurako jardunaldien egun haundiena gaur izango da. Goizeko 10:00etan hasiko dira Atsegindegi Extremadurako elementuekin girotzen. Hasteko, jaki gastronomikoak jarriko dituzte, eta ondoren, 13:00etan hasiko da dantza eta koruen emanaldia, Virgen de Guadalupe taldearen eskutik. ■

## ■ HERNANI ELUR TXORI

### Leitzara ibilaldia, ekainaren 2an

Urtero bezala, Leitzara egingo dute ibilaldia Elur Txori elkarte-kideek ekainaren 2an. Ibilaldia egingo duten 60garren aldia izango da, eta dagoeneko irekita dago izena emateko epea. Gaurtik maiatzaren 26ra arte apuntatu ahal izango da, Elur Txori elkartearen bertan. Ibilaldiaren ondoren bazkaria egingo dute elkartearen. ■

## ■ ASTIGARRAGA SAN ISIDRO

### Bazkariko tiketak gaur arte salgai

San Isidro egunean lagun arteko bazkaria egingo dute Auzolan Elkarteak. Gaur arte erosi daitezke tiketak, Frantxilla Zahar eta Zamalbide tabernetan. ■



**Itxas-Buru**  
Sagardotegia

Bertako sagarra

Bukatu dugu aurtengo Txotx denboraldia.  
Mila esker gerturatu zareten guztioi.  
Hurrengo urtera arte!

Osinaga Auzoa  
20120 HERNANI  
TEL. 943 556 879  
www.itxasburusagardotegia.com

COLABE SAGARDOTEGIA

**ATZA**

Nagusia 32, ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
ikatzataberna@gmail.com

**GNOMOS**

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga  
943 55 38 05



**GAUR** Goizaldean euria egingo du ipar isurialdean, baina goizean nahiko bizkor atertuko du eta zerua nahiko garbi geratuko da. Arratsaldean giro eguzkitsua nagusituko da. **Min.5° / Max.13°**



**BIHAR** Nabarmen igoko dira temperatura maximoak, eta aise gaindituko dira 20 °C-ak bailaran. Goizaldeko lehen orduak, ordea, hotzak izango dira. **Min.5° / Max.22°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Gomez** Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

## HERNANI UDALA PRENTSA OHARRA

# Gerakina azpiegiturak hobetzen eta auzoetako urbanizazio lanak egiten inbertituko ditu Udalak

3,7 milioi eurokoa da. 2019ko eta 2020ko aurrekontuetan txertatuko da, batzuk urbanizazio obra handiak direnez, denbora luzeagoa behar baitute.

2018KO aurrekontuaren likidazioa egin da eta 3.733.000 euroko gerakina gelditzen da erabiltzeko. Aurreikusitakoak baino diru-sarrera gehiago izan ditu Udalak (foru funtsa, urbanizazio ezohiko jarduerak...) eta gastuak ere txikiagoak (energiaren aurrezpena eta exekutatu gabeko partida batzuk).

Hernaniko auzo batzuetako urbanizazio planei bultzada bat emateko eta saneamendu eta kanalizazio lan batzuk egiteko bideratuko du Udala Gobernuak diru kopuru hori. Batzuk proiektu handiak direnez, bi urtetan egitea pro-

posatzen du.

Santa Barbarako harrobia (1,6 milioi euro), Latsunbe-Sorgintxulo urbanizazioa (Errekatoaren eta ubideen egoera aztertu eta bideratu. Auzo hori eta erdigunea lotzeko bidegorria egin, 500 mila euro), Lizeaga auzoaren urbanizazioa (300 mila euro) eta Florida kaleko saneamendua (Egun adar bakarrek den kanalizazioa bikoia egingo dute, 800 mila euro) dira inbertsio handiena eskatzen dutenak.

Landare poligonorako bidea, saneamendu tankea (Akarregi); Iturmendiko udal

etxebizitzak alokairu sozialera bideratzeko egokitu (Lizitazioa hutsik gelditu zen eta aurten berriro lizitatuko da); Portu eta Elizatxo auzoetako Mugikortasun Plana osorik exekutatzeko; Kiroldegiaren lehen pista egokitzea, kirol ekintzez gain, musika kontzertuak eta beste-lako ekintzak ere hartu ahal izateko; Kiroldegiko frontoia- ren hormaren margoketa; Ibilgailu elektrikoa erostea eta kulturarteko Plaza Feminista egoitzerako mobiliarioa erostea dira gerakinetik inbertsio- tarako dirua jasoko duten beste proiektuak. ||

## HERNANI EAJ-PNV PRENTSA OHARRA

# EAJk dio «agintzailea» dela 2018ko gerakinaren gastu proposamena

Amonarraiz bozeramaileak dio «EH Bilduk esan nahio dio korporazio berriari non gastatu behar duen orain arte gastatu ez duten dirua»

EAJK dio gerakinaren inguruan EH Bilduren jarrera «agintzailea» dela. «2018an bakarrik 3.744.913 euroko gerakina (gastatu ez duten dirua) sortu da eta orain diru hori maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan sortuko den korporazio berriari datozen bi urteetan non gastatu behar duten esan nahi dio».

Andoni Amonarraiz bozeramailearen esanetan «gabezia asko alde batera utzita, bere kudeaketarako gaitasun eza eskandalosoa da. 2018rako

zegoen diruaren %26a bakarrik gastatu da inbertsioetarako eta 2017 eta 2018ko Hernani Erabakin gauzatu beharreko proiektuan %9a bakarrik egin eta ordaindu dira. Hori bai, dirulaguntzak eman edo haunditu eta azterketa desberdinak egitea bikain egiten dute. Baita plaza berriak sortu eta ez bete lehiaketa publikoekin».

Aurrera eramango diren proiektuen inguruan, «deigarria da Lizeagara bakarrik 300 mila euro bideratuko direla

eta Harrobirako haunditu egin dela gastua. Berriz ere Lizeaga 'ahaztu' egin dute».

Horretaz gain, «nola da posible 9,8 milioi euro uztea inbertitu gabe, hernaniarren bizitza hobetuko duten, onartutako proiektuetan? Zergatik ez diete hernaniarren eskaera nagusienei erantzunik ematen?».

«Guzti honen gauzarik onena da maiatzaren 26tik sortuko den Gobernuak dirua edukiko duela benetazko beharrei erantzuteko» dio EAJk. ||

## ASTIGARRAGA ERRALDOI ETA KILIKIAK



Herri eskola paretik abiatu ziren erraldoi eta kilikiak.

### Jendetza, erraldoi eta kilikiekin

Iruñako lau erraldoi, lau kiliki eta dultzainero taldeak berriz ere Astigarragako kaleak alaitu zituzten. Txirriklako txistulariekin batera giro polita jarri zuten eta jendetza ibili zen kalejiran. ||

## HERNANI GAUEKO

### Komiki dendak, moneta propioa

Gaueko komiki dendak gaur hiru urte betetzen ditu eta hori ospatzeko bere moneta propioa kaleratuko du. Horrela, datorren astetik aurrera, 10 euroko erosketa bakoitzagatik Gaueko bat jasoko du erosleak eta bilete hori aldatu ahal izango du dendan bertan hurrengo erosketetan deskontuak jasotzeko. Datorren larunbatean, Doako Komikiaren Eguna eta Catan txapelketa ospatuko dira Gaueko dendan bertan. Informazio gehiago 943 57 78 90 zenbakian edo [gauekokomik@gmail.com](mailto:gauekokomik@gmail.com) helbidean. ||

## URUMEA MOBILIZAZIOAK

### Ehizaren alde eta kontra manifestazioak

Donostian ehizaren alde eta aurkako manifestazioak egongo dira gaur. Ehizaren aldekoa goizean Antiguoko zubitik abiatuko da eguerdiko 12:00etan eta Gipuzkoako Plazan, Aldundi parean bukatu. Pasa den urtean 15.000 pertsona bildu ziren. 17:00etan ehizaren aurkakoak elkartuko dira Bulebarrean. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Pisua salgai Hernaniko erdigunean;** 2 gela, sukaldia, sala eta komuna. Egoera onean. Deitu: 628 116 949

**Hernaniko Etxeberri auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da** jubilaria dela eta. Interesatuak Deitu: 689 290 923

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**ARALAR TABERNA**

**GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ**

**ZAPAK KALEK 8**  
943 33 15 06

**XXXV. MUS TXAPELKETA**

**MAIATZAK 6**  
astelehena  
MANOLO - JESUS / JUAN - TARSÍ  
TEO - XAVI / TXELA - EUKEN  
XABI - ANASTASIO / PELLO - JAVIER  
RIKAR - JOXE LEON / MAXI - J. M.

**MAIATZAK 7**  
asteartea  
AITOR - IÑAKI / ANTONIO - PINA  
PABLO - YANYO / ARNAITZ - OIER  
PEPE - PIKABEA / JOXE - KUJE  
LUNARO - RUIZ / JOSEBA - KARLOS

**MAIATZAK 8**  
asteazkena  
IÑAKI - MARTIN / BITXO - ZEZI  
ESTEBAN - JOXIAN / URBIETA - LOIDI  
KOLDO - PABLO / GARI - TXILIBI  
JAVI - TXOMIN / TUTU - JULIAN

**MAIATZAK 9**  
osteguna  
AXIER - KOLDO / MANUEL - GELIS  
JONKAR - JOSEBA / ROBER - AITZOL  
BIXENTE - JOXE / MANOLO - JOSE  
FERNANDO - BIXENTE / SIMON - XABI

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**

**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

Zerbitzu partikularrak  
eta seguru etxeekin  
• Beheak  
• Erranketak  
• Lekeak  
• Eskalak, korreak...

**HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA**

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani